

4 Emazteen eskubideen aldeko borroka

1804an, Napoleonen Kode Zibilak Frantziako Iraultzan lortu eskubideak eta jendeen arteko loturak arautu zituen. Haatik, lege bilduma horrek emazteak arrunt eskubiderik gabe uzten zituen, adingabeen gisan, gizonen autoritatearen pean, aitaren zein senarraren meneko, hots.

Mundu mailan, 1840 urteetan, emazteen bozkaren aldeko borroka hasi zen Ameriketako Estatu Batuetan. Sufragisten mugimendua laster hedatu zen Europa-ra, Ingalaterrara bereziki. Frantzian, XIX. mendearen bigarren partean hasi ziren mugimenduak; haatik, politikoki emazteek deus ez zuten kausitu. Gainera, emazteen eskubideen alde borrokatu ziren emazteek trufa eta bazterketak jasan zituzten, bereziki gizonen eskuetan zen politika eta prentsa munduan.

1

Napoleonen
Kode Zibila, 1804



Art. 213 - Le mari doit protection à sa femme, la femme obéissance à son mari.

Art. 214 - La femme est obligée d'habiter avec le mari, et de le suivre partout où il juge à propos de résider [...].

Art. 217 - La femme [...] ne peut donner, aliéner, hypothéquer, acquérir, à titre gratuit ou onéreux, sans le concours du mari dans l'acte, ou son consentement par écrit.

Art. 229 - Le mari pourra demander le divorce pour cause d'adultère de sa femme.

Art. 230 - La femme pourra demander le divorce pour cause d'adultère de son mari, lorsqu'il aura tenu sa concubine dans la maison commune.»

↑ Napoleonen kode zibilaren emazteei buruzko artikulua garrantzitsuenak.

2

Frantziako sufragisten mugimenduaren hasierak

3

Hubertine Auclert

Hubertine Auclert

(1848, Saint-Priest-en-Murat - Paris, 1914)

Kazetari, idazle eta militantea zen. Frantziako lehenbiziko **sufragista** gisa kontsideratua da. Bizi osoa emazteen eskubide politikoen alde militatu zuen: bozkatzeko zein hautagai izateko eskubidea.

Haren aldarrikapenak ez baitziren entzunak, ekintza ikusgarriak antolatu zituen. Adibidez, 1908an sufragistak hauteskunde gela batean sartu ziren eta bozka kutxa lurrera bota zuten. Halaber, frantses hiztegiaren femennino bihurtzeko borrokatu zen, hain zuzen lanbideen hiztegia aldatzea galdetuz: *témoin*, *avocat* eta *électeur* hitzak, besteak beste.



4

Emazteen kontrako trufa XIX. mendeko prentsan



Les divorciées, Honoré Daumier, Le Charivari, 1848

↑ Hasieran guti ziren egoeraren aldatzeko inplikatu ziren emazteak. H. Daumierek emazte militanteek trufatzeko bildumak prentsan plazaratu zituen.

Hiztegia

Sufragista: emazteen bozka eskubideen aldeko militantea.





▶ Emazteen eskubideen aldeko borroka

Ikus bideoa

Bozkatzeko eskubideen aldeko borroka

XIX. mendearen bukaeran, emazteek lortu zuten lehen aldikotz bozkatzeko eskubidea: 1869an Wyomingen (AEB) eta 1893an Zeelanda Berrian. Europan, XX. mendearen hasiera arte ez zuten erdietsi emazteek bozkatzeko eskubidea. Finlandia, Norvegia eta Danimarka estatu aitzindariak izan ziren. Frantzia, zaila izan zitzaizen emazteei beren eskubideen lortzeko prozesua. Nahiz eta emazte anitz bildu, ez zuten aitzinamen-durik kausitu. 1901ean lege proposamena izanik ere, emazteen bozkatzeko eskubidea 1944an baizik ez zen onartu, hots, II. Mundu Gerla bukatzean.

5 La Fronde emazteen lehenbiziko aldizkaria

→ La Fronde, Marguerite Durand, 1904an, Napoleonen Kode Zibilararen urtemuga kari

« Il n'est pas une femme qui ne doive maudire le Code, il n'est pas une femme, riche ou pauvre, grande dame ou travailleuse, qui, dans sa misère ou dans ses biens, dans sa personne, dans ses enfants, dans son travail ou son désœuvrement, n'ait eu ou n'aura à souffrir grâce au Code »



7 Sufragisten ekintza XX. mendearen hasieran



↑ Louise Weissek (1893-1983) jokamolde biziki inportantea izan zuen emazteen borrokan. Nahiz eta hauteskondeetan parte hartzea ez zuen aizu, hauteskondeetara aurkeztu zen, eta sinbolikoki bozkak bildu zituen kartoizko kutxetan. Argazkiko lehen lerroan ageri da 1935eko sufragista elkarretaratze batean.

8 Emazteen bozkaren aldeko afixa 1909an

